

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Datorren astelehenean zabalduko da Uharteko Zubiarte euskaltegiko ikastaroetan izena emateko epea

Eskaintzaren barnean askotariko ikastaroak eta ordutegiak aurki daitezke autoikaskuntza saioekin batera

Asteartea, 2018.eko maiatzak 22

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak helduek euskara ikasteko Uharteko Zubiarte euskaltegiak 2018-2019 ikasturterako prestatutako eskaintzaren berri eman du. Interesa dutenek astelehenetik aurrera, maiatzak 28, izango dute izena emateko aukera.

Zubiarte Euskaltegiak maila guztietako, A1, A2, B1, B2, C1 eta EGA, ikastaroak eskaintzen ditu ordutegi hauetan: 09:15-11:45, 17:00-19:30 eta 19:30-21:30 ondoko modalitate hauetan: autoikaskuntzako ikastaroa, astean egun batez bi orduko mintzamen saioarekin eta on-line modalitatean 4 orduko lan konpromisoarekin; astean 2 egun, 4 edo 5 orduko ikastaroa (astelehen eta asteazkena edo astearte eta ostegunetan), B2 mailako mintzamina eta kanpo ikastaroak arratsalde edo gauean, astelehen eta asteazkenetan; astean 3 egun, ikastetxeetako guraso taldeentzako edo edonorentzako 6 orduko ikastaroak eguerdian; astean 4 egun, 8 edo 10 orduko ikastaroak, astelehenetik ostegunera, goizez edota arratsaldez. Gainera, abuztuaren 22tik irailaren 27ra bitartean EGA ikastaro trinkoa eskainiko da, goiz edo arratsaldeko ordutegian.

Ikastaroetan matrikula egin nahi dutenek Zubiarte euskaltegiaren egoitzan (Zubiarte kalea 13, 31620 Uhartea) edo ondorengo webgunean <http://euskaltegi.educacion.navarra.es/web/> egin dezakete.

Tasei eta eskaintzari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, aipatutako webgunea kontsulta daiteke, eusubia@educacion.navarra.es e-postara idatzi edo 848 43 10 10 telefonora deitu. Unibertsitatekoak ez diren irakasleek ikastaro hauek egin ahalko dituzte, beren formazioaren barne, eskola ordutegitik kanpo eta dohainik.